**Diputatuen Kontseiluak, 2018ko uztailaren 24ko bileran, ondoko erabakia hartu du:**

Donostialdea mendebaldeko bidaiarien garraio publiko erregularreko hiru amakideei dagokienez, 1987ko uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lehorreko Garraioa Antolatzekoa, onartzeak ekarri zuen, batetik, emakideen baliozkotzea erabat arau horren menpe zeuden beste batzuekin, eta, bestetik, 20 urteko iraunaldia ezartzea, lege horretako bigarren xedapen iragankorrak xedatutakoa aplikatuz. Emakida horien indarraldia 2012ko martxora arte luzatu zen, Garraio eta Errepideetako foru diputatuaren 1997ko irailaren 1eko 22-T/1997 eta 1998ko maiatzaren 4ko 11-T/1998 foru aginduen bidez.

Buruntzaldeko errepideko bidaiarien garraio publiko erregularreko kontzesioen epemugak, espediente berri bat hastera behartzen zuen. Espediente hori kontzesio berri bat esleitzeko lehiaketa publiko baten deialdiarekin amaituko zen. Honek eskaintzen zuen: alde batetik, garraioko eskaintza zuzenduta zegoen herritarren beharretara egokitu ahal izateko aukera eta, bestetik, zerbitzuaren kostua unearen errealitate ekonomikora egokitzeko aukera.

Hala ere, aurreko esleipen-prozeduran zehar izandako gertakarien ondorioz, berrantolaketa hori ezin izan zen behar bezala amaitu.

Handik aurrera, ondoren aipatzen diren eragileek zerbitzuak ematen jarraitzen dute 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak, Errepideko Bidaiari Garraioarenak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera:

1. Pikoaga – Hernani – Donostia; Andoain – Urnieta – Donostia; eta Andoain –Ospitale gunea zerbitzuak, Autobuses Garayar SA enpresak eskainiak.

2. Hernani – Donostia zerbitzuak, Hijos de Antonio Areizaga SA enpresak eskainiak.

3. Zubieta – Lasarte-Oria – Donostia; Tolosa-Andoain – Lasarte-Oria – Donostia; Asteasu – Tolosa; eta Asteasu – Donostia zerbitzuak,

**El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de fecha 24 de julio de 2018, ha adoptado el siguiente acuerdo:**

En relación con las tres concesiones de transporte público regular de viajeros existentes en Donostialdea Oeste, la aprobación de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres, supuso su convalidación por otras sometidas íntegramente a dicha norma y el establecimiento de un plazo de duración de 20 años, en aplicación de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda de dicha ley. El plazo de vigencia de dichas concesiones fue prorrogado hasta el mes de marzo de 2012, mediante las Ordenes Forales del diputado foral de Transportes y Carreteras 22-T/1997, de 1 de septiembre, y 11-T/1998, de 4 de mayo.

El vencimiento de las concesiones de transporte público regular de viajeros por carretera de la zona de Buruntzaldea, obligaba, conforme a la legislación en materia de transportes, al inicio de un expediente que finalizaría con la convocatoria de un concurso público para la adjudicación de una nueva concesión. Esto ofrecía, por una parte, la oportunidad de poder ajustar la oferta de transporte a las necesidades de los ciudadanos a los que iba dirigida y, por otra parte, permitía la adecuación del coste del servicio a la realidad económica del momento.

No obstante, por cuestiones acontecidas durante el anterior procedimiento de adjudicación no pudo concluir con éxito la reordenación pendiente.

Mientras tanto, se han seguido prestando los servicios de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24.2 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Viajeros por Carretera del País Vasco, por los siguientes operadores:

1 Servicios Pikoaga – Hernani-San Sebastián; Andoain – Urnieta – San Sebastián; y Andoain – Ciudad Sanitaria, que se prestan por la empresa operadora Autobuses Garayar SA.

2. Servicios Hernani – San Sebastián, que se prestan por la empresa operadora Hijos de Antonio Areizaga SA.

3. Servicios Zubieta – Lasarte-Oria – San Sebastián; Tolosa – Andoain – Lasarte-Oria – San Sebastián; Asteasu – Tolosa; y Asteasu –

Compañía del Tranvía de San Sebastián a Tolosa SA enpresak eskainiak.

San Sebastián, que se prestan por la empresa operadora Compañía del Tranvía de San Sebastián a Tolosa SA.

Aurreko guztia aipatuta, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuaren 2017ko abuztuaren 28ko 110/2017 Foru Aginduaren bidez onartu zen erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida ezartzeko aurreproiektua.

Señalado todo lo anterior, por Orden Foral 110/2017, de 28 de agosto, de la diputada foral del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, se aprobó el anteproyecto para el establecimiento de la concesión del servicio público de transporte de viajeros, regular permanente de uso general denominada "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián".

Halaber, aipatutako foru aginduaren bidez onartu zen aurreproiektua jendaurrean jartzea hilabetez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek alegazioak egiteko aukera egin ahal zitzatela.

Asimismo, en virtud de la mencionada orden foral se aprobó someter a información pública el anteproyecto por un plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que las personas interesadas pudieran formular alegaciones.

Behin jendaurreko izapidea amaituta eta epe barruan aurkeztutako alegazio idatziak aztertuta, 2018ko uztailaren 10eko Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bidez, batetik, bidaiarien errepideko herriarteko garraio aurkeztutako alegazioei erantzuna eman zaie; eta bestetik erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida ezartzeko proiektua onartu zen.

Una vez concluido el trámite de información pública y analizados los escritos de alegaciones presentados en plazo, por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de julio de 2018, se ha contestado a las alegaciones presentadas en el período de información pública y se ha aprobado el Proyecto para la concesión del servicio público de transporte de viajeros, regular permanente de uso general denominada "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián".

Bestalde, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko bidaiarien errepideko garraioarenak, 21. artikuluko 1. paragrafoan zehazten du bidaiarien garraio publikoko zerbitzua emakida administratiboaren bidez egingo dela, oro har; eta, bestetik, lege horrek 25. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezartzen du dagokion emakida esleitzeko lehiaketa prozedura jarraituko dela, eta lehiaketa horren ezaugarri teknikoen eta baldintza administratiboen agirien oinarritzat hartuko dela Administrazioak onartutako proiektua.

El apartado 1 del artículo 21 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera del País Vasco, determina que el servicio público de transporte de viajeros se efectuará, como regla general, mediante concesión administrativa; y los apartados 1 y 2 del artículo 25 de dicha ley establecen que para el otorgamiento de la correspondiente concesión se seguirá el procedimiento de concurso, y que en el citado concurso servirá de base al correspondiente pliego de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas el proyecto aprobado por la Administración.

Hala, behin proiektua onartuta, kontratazio espedientea ere onartu behar da. Kontratua 10 urterako izango da, hasiera batean, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 24. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusten den epea baita. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia, hasierako HAMAR urteko iraupena eta aurreikusten den luzapen epea kontuan hartuta, eta aurreikusten diren gehienezko aldaketak ere jasoz (% 35), 211.420.802,08 eurokoa da.

En consecuencia, una vez aprobado el proyecto, procede aprobar asimismo el correspondiente expediente de contratación que contempla un contrato de una duración inicial de 10 años, que es el plazo previsto en el apartado 1 del artículo 24 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo. El valor estimado total del contrato para el conjunto de los DIEZ años de duración inicial más el plazo de prórroga prevista incluyendo las modificaciones máximas previstas (35%) asciende a 211.420.802,08 euros.

Bestalde, kontuan izanda kontratua ez dela ekitaldi honetan gauzatuko eta tratu jarraituko eta etengabeko izaerako kontratua denez, ez da gastu baimenik behar 2018. ekitaldirako. Kontratuaren urteko gastua ekitaldi bakoitzaren hasieran baimenduko da.

Por otra parte, teniendo en cuenta que la ejecución del contrato no comenzará en el presente ejercicio y en atención a la consideración del contrato como de tracto sucesivo de carácter permanente, no es preciso autorizar gasto para el ejercicio 2018. El gasto correspondiente a cada una de los anualidades del contrato se autorizará al inicio de cada uno de los ejercicios presupuestarios.

Horrela, bada, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak proposaturik, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

En su virtud, a propuesta de la diputada foral de Movilidad y Ordenación del Territorio, previa deliberación, este Consejo de Gobierno Foral

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

**Lehenengo.-** Onartzea erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida esleitzeko kontratazio espedientea, eta, halaber, xedatzea kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea.

Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia, hasierako HAMAR urteko iraupena eta aurreikusten den luzapen epea kontuan hartuta, eta aurreikusten diren gehienezko aldaketak ere jasoz (% 35), 211.420.802,08 eurokoa da.

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación de la concesión del servicio público de transporte de viajeros, regular permanente de uso general denominada "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián", disponiendo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

El valor estimado total del contrato para el conjunto de los DIEZ años de duración inicial más el plazo de prórroga prevista incluyendo las modificaciones máximas previstas (35%) asciende a 211.420.802,08 euros.

**Bigarren.-** Onartzea aipatutako kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak.

**Segundo**.- Aprobar el correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de prescripciones técnicas que regirán la citada contratación.

**Hirugarren.-** Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea, kontratua esleitu, sinatu eta hasierako iraupeneko gainerako ekitaldietako gastua baimentzeko. Ahalmena ematea, halaber, kasua bada, kontratua luzatzeko eta luzapen horiei dagokien gastua baimentzeko eta kontratua zuzen gauzatzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpenak egin, hartu eta emateko.

**Tercero.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio para adjudicar el contrato, formalizarlo y autorizar el gasto de los ejercicios correspondientes a la duración inicial, así como para prorrogar, en su caso, el contrato y autorizar el gasto correspondiente a las eventuales prórrogas y para adoptar cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarias para la correcta ejecución del contrato.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek Administrazioarekiko Auzien Donostiako epaitegietan, BI HILABETEKO epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, interesdunek aukera dute

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter

BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, HILABETEKO EPEAn, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, 15 LANEGUNEKO EPEAN, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren hurrengo egunetik aurrera. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 DÍAS HÁBILES a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia, 2018ko uztailaren 24a / San Sebastián, 24 de julio de 2018

**IDAZKARI TEKNIKOA, / EL SECRETARIO TÉCNICO,**

**Izp. / Fdo.: Segundo Diez Molinero**